



JOXEAN AGIRRE

AKORDATZEN NAIZ

Bruno Bettelheim psikiatra austriarrak denboraldi bana igaro zuen Dachau eta Buchenwald-en, eta berehala ohartu zen familia handietako juduek eta, bereziki, tarte-
teka otoruntza handiak egiteko mahai baten bueltan biltzen zirenek erresistentzia handiagoa zutela eremuko baldintza muturrekoak eramateko orduan. Baldintza gogor horietan amore emateko zorian zirenean, otordu horiekin gogoratzen omen ziren eta beren golkorako esaten omen zuten etorriko zirela egun hobeak. Besteak, familia urrikoak, abaildu egiten ziren.

Beti izan naiz Eguberri zalea, baina isil-gordean neraman zale-
letasuna, ingurukoei kurtzia, kitscha edo modernotasunaren aurkakoa irudituko zitzaielakoan, baina Bettelheimen testua irakurri nuenetik, lotsarik gabe agertzen naiz familiako ospakizun handi horien alde.
Badakit familiak bi aurpegi dituela, babes adina zama ematen dituela, eta oreka mantentzeko, ludiak eguzkiarekin egiten duen bezala, orbita eliptikoa mantentzea dela onena, komeni denean gerturatu eta komeni denean alde eginez. Nik gaztetandik urruti samar ibiltzeko zoria izan nuen, eta horregatik, beharbada, estima-



NAGORE AMONDARAIN

SUTONDOEN BILAKAERA

Gaurkoan, guretzat Gabonak zer diren galderari erantzutea, gurean bilakaera nabarmena izan baitu urteko sasoi honek.
Erraza egiten zait galderari erantzutea, gurean bilakaera nabarmena izan baitu urteko sasoi honek.
Garai batean, aitite eta amamen epelean biltzeko sasoiak genuen, belaunaldien batze bat bezalakoa zen gurean. Baina urteek aurrera egin duten heinean, aitite eta amamen faltek hutsune handi bat utzi dute, itzali dira sutondo guztiak. Dagoeneko Gabonak “gabon” eta argiak piztu baino, itzali egiten dira

gurean. 2003ko urtea Mexikon agurtu nuen, San Cristobal de las Casas herrian. Norbere ardatzaren bila egiten diren bidaia horietako bat izan zen. Etxekoei deitu nien, artean egun argiz zela Chiapasen, Euskal Herriko Gabon zaharren suziri hotsa entzuten zen. Azkar eskegi nuen telefonoa, alboan sumatu bainituen neska madrildar batzuk, eta gau hori konpainian pasa beharra zegoen, zelan edo hala, horrela agintzen duelako tradizioak, antza!
Hurrengo urtea, Mauritania eta Mali arteko mugan agurtu genuen, Maliko Nioro eskualdean. Gauez zeharkatu genuen delako muga. Malin sartzeko le-

gezko bisarik gabe geunden markarroi triste batzuk afaltzen 2004ko Urtezahar gauean, hari-
k eta herri txikiko umeak zarata batean hasi ziren arte, sartuak omen ginen 2005. urtean. Urteberriko urtarrilaren 1ean sartu ginela Malira dio nire pasaporteari.
Atzerrian, etxeko laurok Ondorengo urteetan, aitite eta amamen tokietan, Argentinatik Euskal Herrira bizitzera etorritako lagunak izan ditugu bazkari eta afarietan. Zer esanik ez, hauen berba jarioak mahai bete jan baino gehiago betetzen duela etxe bat, iaioak dira mahai-
buelako berbaldietarako. Urte batzuetan, geu izan gara beraien





tu ditut horrenbeste egun bere-
zi horiek.

Umetako Gabon gauari buruz-
ko oroitzapenak aletzen hasita,
Georges Perec-i “Je me suviens”
hartan bezala, oroitzapenak da-
tozkit erreskadaren (Sarrionandiak
ere bide beretik idatzi zuen
“Akordatzeko”). Akordatzeko naiz
gau horretan baserriko argi guz-
tiak piztuta egoten zirela, eta
gauzez bertara zihoanaren etxe sor-
gindu batean sartzen zela pen-
tsatzen zuela. Akordatzeko naiz bi
bisigu potolo egoten zirela arras-
karen gainean sabaitik zintzilik,
eta ama bizi zen artean, kosta
egin zitzaigula ohitura hori ken-
tzea, nahiz eta bisiguaren pre-
zioa zeruetara igota zebilen,
amarentzat, bisiguri gabe, ez
baitzegoen gabon afaririk. Akor-
datzeko naiz osaba solteroaren etor-
tzen zela Eibartik opariek, be-
randu samar bazen ere, trenean
etorri ohi zela, andregai bilatu
eta ezkondu zen arte. Akorda-



tzen naiz sukaldea kez eta jaki
usainez betetzen zela, eta gau
horretan aitonak ez zuela lanik
egiten, urteko beste gau guztie-
tan artoa edo baba lekak aletzen
aritzen baitzen, uste baitzuen
lan astun baten nekea lan arina-
go bat eginez kentzen zela. Akor-
datzeko naiz tripako mina sentitu
arte jaten gurela turroia, eta
ondoren xanpaina edaten uzten
zigutela sabela arintzeko, eta bu-

rua arintzen zitzaigula. Akorda-
tzen naiz gau horretan kantuan
egiten gurela, baina hainbeste
senidetatik ez zegoela bakar ere
ondo kantatzen zuenik.

Urteak igaro eta umeak iritsi
zirenean, akordatzeko naiz afal
aurretik lagun bat Olentzerok
jantzita etortzen zela gure ume-
engana, eta ni (ni ere Olentzerok
jantzita) joaten nintzela laguna-
ren etxera eta umeak aho zaba-
lik uzten nituela, egunean zehar
zer egin zuten asmatzen niela-
ko. Akordatzeko naiz gure etxeko
egongelan eta haienean baso
bat ardo egoten zela, kiantza
bat, eta hura edan ondoren opa-
riak banatzen genituela.

Guk, tamalez, ez genuen Olen-
tzerorik umetan, erregeak etor-
tzen baitziren, eta akordatzeko
naiz adinean gora joan ahala,
erregetan sinestetik errege iza-
tera igarotzen ginela bat batean,
eta eskuetan farolak hartu eta
oheko estalkiekin jantzita ibil-



tzen ginela eta ni harro senti-
tzen nintzela anaia eta arreba
txikiagoak engainatzeko gai
nintzelako.

Gaurko familiak txikiagoak
dira, nuklearragoak, baina gure-
an tribua mantentzen da: lehen-
gusuekin urtean zehar afariak
egiten jarraitzen du, eta Egube-
rri egunean hogeita hamar bat

lagun bilduko dira baserrian.
Adituek diotenez, zaila da aurre-
rantzean Europa mailako gerra-
rik izatea, jendeak gaur forma-
zio gehiegi duelako fusila hartu
eta frontera joateko. Baina, ba-
daezpada, komeni da gure illo-
bek eta bilobek otordu handien
oroitzapena memorian iltzatu-
rik eramatea.



sutondo. Baina hauek, dagoene-
ko, osatu eta handitu dute sen-
dia, aita eta ama bihurtu dira,
eta badute nahiko epel beren
etxeko sutondoan.

Azken urteak atzerrian eman
ditugu etxeko laurok elkarrekin,
neba-arrebok gurasoekin, su-
tondo berrien ezagutzan. Istan-
buleko Taksim plaza izan zen
urte zaharra eta berria agurtze-
ko sutondoa. Kaleko postu bate-
an eskatutako granada zuku ba-
tekin egin genuen topa.

Sutondo abegikorra zen or-
duan Taksim, gerora etorri bai-
tziren plaza horretako su-garren
oihartzunak gurera. Gabon ho-
rietan, Kurdistani buruz zerbait
gehiago jakin genuen. Istiklal ka-
learen hasieran egin baikenuen
hitzordua, ezagutzen ez genuen
kurdu batekin. Garai haietan,
Loiolako Hegiak itzultzen ari
omen zen, hori berari buruz ge-
nekien apurra. Baina ez zen zaila
izan hura ezagutzea; bidearen

bestaldean besazpian Manuel Ri-
vasen “El lapiz del carpintero” li-
burua zuen gizon bat zegoen.
Eta, zelan ez, berak behar zuen
izan. Istanbulen gaztelaniazko li-
buruen irakurle klub bat omen
zegoen, eta hantxe aritzen zen.

Hurrengo urteetan, Erromako
Koliseoan. Dublineko Trinity
College inguruan. Eta Parisen,
Lucio Urtubiaren kontuak en-
tzuten.

Gabonak aitzakia baino ez di-
ra opor egun batzuk nahieran
antolatzeko, nire ustez. Suto-
doek ez dute beroa betiko eran
eta betiko tokian eman beha-
rrik, tradizioak horretarako dau-
delako: eramateko, ekartzeko,
eraldatzeko. Eta sutondoetako
kide izateko baldintzak ez ditu
zertan tradizioak markatu be-
har. Iruditzen baitzait abendua-
ren 24a, 25a, 31a zein urtarri-
aren 1a antolatzea bide-orri
konplikatu bat bihurtzen dela
etxe askotan.